

## 5. KANALAK

Gure enpresa bezeroengana heltzeko, dauden kanal mota guztietatik kanal propioak aukeratu ditugu. Kasu honetan bezeroarekin eskuz-esku lan egingo dugu, bitartekorik gabe. Kanal propioak erabiliko ditugu interakzioa askoz errazagoa izateko.

Komunikazio kanalak eukitzea faktore oso garrantzitsua da, beraz, korreoa, publizitatea zein sare-sozialak (facebook eta instagram gure kasuan) nagusiki erabiliko ditugu jendearekin kontaktua izateko. Modu honetan gure enpresa ezagutzera ematea lortuko dugu eta horrela bezeroekin komunikazio duina ziurtatu dezakegu.

Gure enpresa zerbitzu bat eskaintzen duenez ez dago produktu baten banaketa kanalik, zerbitzuaren banaketa dago.

